

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

2549

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 11koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, «kale antzerkia bultzatuz» programari zuzendutako diru-laguntzak emateko balorazio batzordeko bokalak izendatzen dituen eta batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2012ko apirilaren 24ko Agindua, hots, «kale antzerkia bultzatuz» programari zuzendutako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Kontuan izanda 2012ko apirilaren 24ko Aginduaren 10. artikulua xedatzen duenez diru-laguntza horiek emateko ebazpen-proposamena balorazio batzorde batek egingo duela eta batzorde horretako bokalak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko direla

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Kale antzerkia bultzatuz» programari zuzendutako diru-laguntzen ebazpen proposamena egingo duen Balorazio Batzordeko bokalak izendatzea eta batzorde horren osaera argitara ematea. Hau izango da:

Lehendakaria: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Bokalak:

- Amaia Ibáñez Zalba anderea.
- Alberto García García de los Salmones jauna.
- Amagoia Garaizabal Armesto anderea.

Idazkaria: José Luis Ibarzabal Egibar jauna, Kultura Saileko teknikaria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 11.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.